



GAUR, PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS

Bi emanalditan 'Irrien lagunak' lana aurkeztu dute Tolosako Leidor antzokian, 16:30ean eta 19:00etan >3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2010-03-06

VIII. URTEA 1945. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Goian, Lander Otermin eta Onintza Iraola. Beheran, Mirian Elorza eta Imanol Otermin. A. IMAZ

ITALIATIK DOMINAK ETA BIZIPENAK EKARRI DITUZTE TIRATZAILEEK

SOKATIRA Lander Otermin, Onintza Iraola, Mirian Elorza eta Imanol Otermin Kluben Arteko Munduko Txapelketan egon dira, Italian. 6-7

Ibilgailu elektrikoak jarriko dituzte Alde Zaharrean

TOLOSA Merkatarien banaketa lanak egiteko jarriko dute martxan «proiektu aitzindari» hau z



Xabier Mujika alkatea, eskola txikiaren eraikina atzean duela. E. MAIZ

«Hezkuntza sailak hitz emandakoa ez du bete nahi»

LARRAUL Dagokien eskola txikia aurrera eramatea nahi dute; herrian ia 60 haur dituzte s



Usabal Poligonoa. 120 partzela (LICAR parean)
20400 - Tolosa.

902 550 766

Banaketa ibilgailu elektrikoekin egingo dute Alde Zaharrea

Ingurumena » Ibilgailuen joan-etorria eta CO2ren emisioa murriztu nahi du Udalak; gisa honetako lehen ekimena da EAEn.

INIGO TERRADILLOS

Proiektu «berritzaile eta aitzindaria» du esku artean Tolosako Udalak. Hain zuzen ere, Alde Zaharrean ibilgailuen joan-etorria eta horrek sortzen duen CO2ren emisioa murriztu nahi du, eta horretarako, ibilgailu elektrikoak jarriko dituzte bertako merkatarien banaketa egiteko.

Tolosako Udaleko Ingurumen saila herriko bi merkatarien elkarrekin laguntzarekin ari da burutzen proiektua. Une honetan, lehen fasean daude, hau da, ikerketa egiten ari dira, eta behin hori amaitzen jakingo dute proiektua gauzatu daitekeen, eta gauzatzeko nola egingo litzatekeen.

Dena den, Yurre Peñagarikano ingurumen zinegotziak atzo egindako aurkezpenaren azaldu zuen bezala, orain arte bildu dituzten datuen arabera, proiektua gauzatzeko dela ziur daude, «onura handiak ekarriko babiluzke». 2.500 herritar bizi dira egun Alde Zaharrea, eta orain arteko kontaketek diotenez, 4 ordutan 300 ibilgailu baino gehiago sartzen dira bertan. Horietatik erdia merkatarien banaketarako langileak lirateke, %12 gremioak eta %33 bizilagunak eta gaurerak dituzten herritarrak. Bada, proiektua abian jartzen bada banaketarako ibilgailuen kopurua erdira murriztuko dela azaldu zuen Peñagarikanok, «eta horrek batera Alde Zaharreko airearen kalitatea hobetu egingo da, CO2ren emisioa nabarmen jaitsiko delako».

Hori posible egiteko Udalak banaketa lanak erregulatuko ditu, ibilgailu elektrikoekin banaketa zentralizatu batekin. Zama edo karga



Antton Lekuona, Yurre Peñagarikano eta Agustin Aduriz, atzo. I.T.

lanak Alde Zaharretik gertu dagoen guztiak aurkeztu dituzte. Ondoren, gune horretatik denda bakoitzera ibilgailu elektrikoekin egingo litzateke banaketa.

Ekaina bitarte datu bilketa

Antton Lekuona Udaleko ingurumen teknikariak Euskal Autonomia Erkidegoan proiektu aitzindako dela azaldu zuen: «Oso esperientzia polita izango dela uste dugu, baina oraindik ikertzen ari

gara, datuak biltzen Alde Zaharreko bi sarbideetan, hau da, Nafarroako zubian eta Gorriti plazan; halaber, merkatariei ere eskatu diegu datu bilketan parte har dezatela, eurek emandako informazioa ezinbestekoa baita, eta erantzun oso ona jaso dugu euren aldetik». Ekaina bitarte datuak bilduko dituzte, eta horren arabera jakingo dute zein behar dituzten. «Izan ere, oraindik ez dakigu zenbat eta nolako ibilgailuak beharko ditugun edota nola egingo dugun ba-

» DATUAK

- **Proiektua.** Alde Zaharrean merkatarien banaketa egiteko ibilgailu elektrikoak jarriko dituzte.
- **Helburua.** Banaketa ibilgailuen joan-etorria erdira murriztu nahi dute, eta horrek batera, sortzen duten CO2ren emisioa ere bai.
- **Egungo datuak.** Lau ordutan 300 ibilgailu sartzen dira Alde Zaharrean, horietatik erdia merkatarien banaketa egitera doazenak.
- **Egoera.** Ekaina bitarte datu bilketa egingo dute. Orduan zehaztuko da proiektua nola burutu.
- **Aurrekontua.** 114.000 euro, ikerketa eta ibilgailuak barne.

naketa; hori datuak aztertzearekin batera etorriko da», azaldu zuen Lekuonak.

Agustin Aduriz herriko bi merkatariei elkarrekin komertzio teknikariak proiektuari babesa emateko prest daudela herriko dendariak azaldu zuen. Egiten diren banaketa motak ezagutu nahi ditu Udalak, eta horretarako, merkatariei eta ostalari bakoitzak bere hornitzaileekin erabiltzen duen metodologia zehaztu aldera, merkatariek galdera sorta bat erantzun beharko dute.

114.000 euroko aurrekontua du proiektu honek eta %70 Eusko Jaurlaritzak finantzatuko du. Diru horren baitan egiten ari diren ikerketa eta ibilgailuen erosketak sartuko lirateke.

PSE-EEko politikariak Topic-en

POLITIKA » Arritxu Maraion PSE-EEren Gipuzkoako diputatua eta Manuel Huertas PSE-EEren Gipuzkoako lehendakariaren bisita izan zuen atzokoan Topic Txontxongoen Nazioarteko Zentroak. Eurekin batera Oscar Renedo Tolosako PSE-EEren zinegotzia ere izan zen. Zentroa errealitate izan aurretik egindako lana gogoratu zuten, eta aurrera begira ere horretan jarraitu behar dela azpimarratu, «kulturarekin loturiko ekimen berritzaileak eta hezitzaileak baita, beraz, gure babesa izango du etorkizuneari ere». I.T.



Lehendabizi Annapurna eta gero Shisha Pangma igoko du Pasabanek

Mendia » Aurreikusitako guztia erabat aldatu beharra izan dute Tibeten sartzeko baimenik ez dietelako eman.

ERREDAKZIOA

Ez die esperotako hasiera eman burutzera doan espedizioari Edurne Pasaban mendigoizale tolosarrak. Izan ere, Shisha Pangma igotzeko asmoa zuen lehendabizi, eta behin hori lortuta, Annapurna gailurrak behar zuten izan, bere aurreikuspenen arabera, 14 zortzimilako zerrendan azkena. Ez da horrela izango ordea, azken unean goitiki behera aldatu behar izan baitute ibilbidea baimen arazoengatik.

Tibeten sartzeko baimena ukatu egin diete, inolako arrazoirik emangabe, apirilera arte, beraz, lehendabizi Annapurna gailurra egitea erabaki dute. Hain zuzen ere, herenegun abiatu ziren Bilbotik Himalaya aldera Edurne Pasaban, Asier Izagirre, Alex Txikon eta Ferran Latorre eta TVE tele-

bista kateko *Al filo de lo imposible* saioko taldekideak. Asteartean edo asteazkenean hasiko dira Annapurnako behe kanpalekura gerturatzeko.

Aurreikusitako zutena erabat aldatu dutenez, ez dakite Annapurna zein egoeratan aurkituko duten. Baina, Pasabanek hegazkina hartu aurretik azaldu zuen bezala, «Shisha Pangmarajoateko ideari eutsiz gero, hilabete egon beharko genuke geldirik, eta ezin dugu horrelakorik egin». Badakite, ordea, Annapurnan ez dutela beste espedizioarik topatuko eta horrek lan gehiago egitea esan nahi duela: «Annapurna mendi zaila da, inor ez da egongo, eta gure ireki beharko dugu bidea osorik; lan handia eta gogorra izango dugu ziur». Lanaz gain, arrisku maila ere handitzen da, eta 14 zortzimilako proiektuan egongo ez balitz ez litzatekeela orain gailur horretara joango azaldu zuen.

Annapurna igoz gero 13 zortzimilako litzuzke tolosarrak, eta Shisha Pangma baino ez litzazioke gertatuko. Bosgarrenez saiatuko da mendi hori igotzen.

elduain
taberna-jatetxea

Eguneko menuak
Asteburuko menu bereziak
Plater konbinatuak
Ogiartekoak

Elduain hirigunea, 1
30493 ELDUAIN (Gipuzkoa)
Tel. 943 68 33 27



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irrien lagun sudur gorriak Leidorrera etorriko dira gaur



'Irrien lagunak' aurkeztu zutenetik, Euskal Herriko hainbat txokotatik igaro dira Pirritx, Porrotx eta Mari Motots. G.G.

Tolosa » Pirritx, Porrotx, Mari Motots eta beraien lagunak bi emanaldi eskainiko dituzte gaur arratsaldean Tolosan.

ERREDAKZIOA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta beraien hainbat lagun Tolosan izango dira gaur arratsaldean. Irrien festa mundialean pailazoak, lagun bihurri eta kilikagarriak eta gonbidatu bereziak bilduko dira. Bi emanaldi eskainiko dituzte Leidor antzokian, lehendabizikoa 16:30ean izango da eta bigarrena, 19:00etan.

Parte-hartzea da oraingoan Euskal Herriko pailazo ezagunek duten helburu: Pailazo zein zale, barre, kantu eta dantzan ariko dira elkarrekin, disko berriko abesti batzuk, lehenagokoak eta herrikoiak tartekatuko dituztelarik. Pailazoez gain, Xabier Zabala musikaria eta Idoia Uralde kanta-

ria oholzta gainean izango dira, zuzeneko musika eta ahotsa eskainiz.

Aldaketak ere egin behar izan dituzte Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek, izan ere, aurtien Pirritxek ez du zuzenean beraiekin herri herri ibiltzerik. Haurdun dagoenez, beste modu batean hartzen du parte emanaldietan. Saioan zehar hainbat alditan konektatuko dute berarekin bideo-konferentzia bidez. «Koloretako Euskal Irria maite dugulako, irri egin dezagun, etor zaitez gurekin, bildu gure festara!» diote.

Aurreko lanetan bezala, kolaboratzaile asko izan dituzte lan honetan ere, tartean: Pantxoa eta Peio, Jon Maia, Betagarri taldeko abeslari Inaki Ortiz de Villalba, Maialen Lujanbio, Ondarroako senegaldarren koadrila bat, Asier Gozategi, Gorka Urbizu, Kaki Arkarazo eta Ainhoa Agirreazaldegia.

Izen bereko diskoa

Irrien lagunak du izenburu gaur Leidorren ikusi ahal izango den emanaldiak, eta izen bera du paila-

zoen azken diskoak. Aurreko lanetan bezalaxe, lagun mordoak hartu du parte disko honetan, eta euskaraz gain, mundu osoko beste hainbat hizkuntza entzun daitezke. Lagun horien artean dira, adibidez, O Sonoro Maxín talde galiziarra edo Dúo Jade bikote kubatarra. Azken hauek bi abesti kantatzen dituzte, euskaraz bata eta gaztelaniaz bestea. Ondarroako senegaldarrek ere euren hizkuntzatan kantatu dute eta berezia izan da, halaber, Jon Maia *abuela Maria Luisari* eskainitako sevillana, Lasarte-Oriako Semblante Aldaluz taldeak euskaraz abesten duena.

Abestien hitzak pailazoez sortu eta antolatutako izan ziren; musikari dagokionez, ordea, konposizioak eta egindako moldaketak Xabier Zabalak landu zituen. Grabaketan lagun izan zituzten, besteak beste, Igor Telletxea bateria jotzailea, Oreka Tx txalaparta taldea, Tapia eta Leturia trikitilariak, Idiazabalgo Musika Eskolako haurrak, eta Luis Vega gitarra eta baxu-jotzailea.

Herri batzarra egingo dute diagnosiaren emaitzak azaltzeko

Berastegi » Agenda 21 egitasmoaren baitan osatutako Ekintza-Planaren ondorioak aurkeztuko dizkiete herritarrei.

ERREDAKZIOA

Udaleko Agenda 21 egitasmoaren baitan, herri batzarra deitu dute datorren ostegunerako. Bilera, hilaren 11n, 19:30ean izango da, udal-letxeako pleno aretoan. Herri batzarraren helburua «Agenda 21eko Ekintza-Planaren Ebalua-

zioaren emaitzak aditzera ematea» izango da.

2006an eman zioten hasiera Berastegin Agenda 21 prozesuari. Hurrengo urtean, Iraunkortasun Diagnostikoa prestatu zuten eta urte horren amaieran bertan nahiz 2008 hasieran, Berastegiko Agenda 21 Ekintza-Plana adostu eta Udalak Osoko Bilkuran onartu zuten.

Orduz geroztik, 2008 eta 2009 urteetan Ekintza-Planean txertaturiko zenbait ekintza aurrera eramán dituzte. Hala, orain gutxi, Ekintza-Planaren ezartze maila-

ren inguruko ebaluazioa egin dute Foru Aldundia eta Berastegiko Udalaren artean, Minuartia-Enea kontsultoraren laguntza teknikoaz. Hori dela eta, azterketa honetan lorturiko emaitzak aditzera emateko egingo dute datorren osteguneko herri batzarra.

Honez gain, Udal ordezkariak, 2010ean egin beharreko ekintzen inguruan herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela ikusten dute, lehentasunak ezarri eta berastegiaren behar eta nahietara ahal den neurrian erantzuteko behintzat.



Hodei Truk abesbatzako kideek aurrera jarraitzen dute ETBko saioan. HITZA

Hodei Truk berriro ere 'Oh happy day' saioan

Tolosa » Tolosako abesbatza ETBko programako zazpigarren saiora iritsi da; 'Volare' kantua abestuko dute.

ERREDAKZIOA

Hodei Truk abesbatzak jarraitzen du Euskal Telebistako *Oh happy day* abesbatzen lehiaketan. Norgehiagoka hau osatzen dituzten 13 saioetatik, jada, 7 grabatu dira: beraz ekuadorra pasata eta eskualdeko gazteek aurrera jarraitzen dute.

Iada bai Donostiako abesbatza, bai Irungoa eta baita Donibane Lohizuneko ere kaleratuak izan dira. Bestalde, Hodei Truken ema-

naldiak, bai musikalki, bai eszenikoki, gero eta txalotuagoak izaten ari dira.

Lehendabizi, Inauterietako giroa eraman zuten Oskorriren *Furra furra* abestiarekin. Hunkigarria haien Hertzainak talde mitikoaren *Aitormena* abestiaren interpretazioa eta umorez betetako *Walking on sunshine* taularatu zutenekoa.

Gaur 22:15ean berriro telebistan ikusteko eta entzuteko aukera izango da. Bertan, zenbait ezustekorekin, *Volare* kanta eskainiko dute. Emanaldiren bat galdu dutenek internet bidez ikusi dezakete, *youtube* webgunean bilatuz Hodei Truk. Hor orain arte egindako saio guztiak topatu daitezke.

Hirukidek antolatuta, elkartasun bertso-afaria

Tolosa » Hilaren 12an izango da lurre elkarteak; Anjel Mari Peñagarikano, Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa ariko dira bertsoan.

ERREDAKZIOA

Hirukide ikastetxeak antolatuta, bertso afaria izango da datorren ostiralean, hilaren 12an. Lurre elkarteak egingo dute jaialdia 21:00etatik aurrera.

Gurasoen Euskara Batzordeak, Anjel Mari Peñagarikano, Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa bertso-lariekin elkarlanean antolatu dute ekimena. Hezkuntza komunitatearentzat prestatutako afari solidarioa ere bada hau. Bildutako diruaren zati bat elkartasun proiektuak bultzatzeko erabiliko da, Mozanbiken hain zuzen ere.

Bertso afarirako txartelak ikastetxeo idazkaritzetan egingo dira salgai datorren asteazkenean bitartean, 22 euroren truke.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Etxeko lanak.** Eskualdeko emakumea, goizez etxeko lanak egiteko prest dago. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 600 71 64 76.

■ **Eskaintza.** Emakume euskalduna, arratsaldetan, gauean edo as-

teburutan lan egiteko prest dago. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 688 65 12 45.

SALGAI

■ **Motorra.** KTM 125 SX. 1998koa, ondo zaindua. Interesatuak deitu 651 70 90 23 telefono zenbakira.

Laburrak**LTD sintonizadore-ekipo bat eskatzeko aukera**

AMEZKETA ● Apirilaren 3an izango den itzalaldi analogikoa dela eta, Espainiako Gobernuak LTD sintonizadore-ekipo bat eskatzeko aukera luzatu du ondorengo baldintzetakoren bat betetzen dituztenei: 65 urte edo gehiago izatea eta II edo III graduko dependentsia; %33ko ezgaitasuna edo gehiago izatea, eta ikusmenarena edo entzumenarena izatea; 80 urte baino gehiago izatea eta bakarrik bizitzea, edo beste norbaitekin bizi eta honek ere 80 urte baino gehiago izatea. Eskaerak Udaleko Gizarte Zerbitzuetan egin beharko dira hilaren 25a baino lehen.

Emakumaren Eguneko bazkaria egingo dute bihar

GAZTELU ● Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, bazkaria antolatuko dute biharko Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkarteak. Bazkaria 14:30ean hasiko da.

Ibarra F.S.k Kantabriar jokatu du gaur

IBARRA ● Ibarra F.S. taldeak Kantabriar jokatu du gaur Santandereko Muriedas Urrutiaren kontra, 18:00etan. Lurrealdeko jubenilek Eskolapiok Plomix A-ren aurka jokatu dute bihar, Belabietan, 10:30etan. Bestalde, Tolargik Eskolapiok aurka jokatu du Eskolapioketan, bihar 12:00etan.

Aurrera elkarteoen partidak asteburuan

LEITZA ● Aurrera elkarteok pilotariak hainbat partida dituzte asteburuan. Nafar jokoean finalaurrekoak jokatu dituzte. Gaur, 10:00etan, Lizarran, infantil mailako Aurrera B-ko Xabier Zubiriak eta Ander Eskuderok San Miguel C-ren aurka jokatu dute. 10:00etan ere, Mutiloabeitin, kadete mailan Aurrera C-ko Xabi Erasok eta Ibai Gilak Aranpilota B-ren aurka jokatu dute. Bestalde, Zizurko Txapelketan kadete mailan Anartz Olanok bihar 08:45ean jokatu du. Herrerako Txapelketan, kadete mailan, Xabi Jaunarenak eta Mikel Hernandorenak bihar jokatu dute 10:00etan.

Herriko proiektuen berri emanaz



Saneamendu lanak burutzen ari dira egunotan Abaltzisketatik Amezketara doan bidean. I. GARCIA

Abaltzisketa » Udalerrian gauzatu diren eta gauzatuko diren proiektuen berri eman die Udalak herritarrei.

IMANOL GARCIA

Abaltzisketako Udalak herritarrei aurkeztu berri dizkie herri batzar batean iaz egindako proiektuak eta aurtengorako aurreikusten direnak, eta proiektuen finantziarioa ere zehaztu. Guztira 12 egitasmo azaldu zituzten, tartean Goibegi zerbitzuetxea, saneamendu lanak edo Ibiurretik Larraitzera joango den bidea.

Herri batzar horretan Markel Olano ahaldu nagusia eta Rafa Uribarren Landa Garapeneko diputatua izan ziren. Izan ere, Foru Aldundiko LandaGipuzkoa 32 egitasmoak herriko zenbait proiektu diruz laguntzen ditu. Horietako egitasmo bat Goibegi zerbitzuetxea da, LandaGipuzkoa 32tik bultzatu den lehenengo proiektua, hain justu. Eraikinarren lanak martxan daude eta 13 hilabete epean egitea espero dute.

LandaGipuzkoa 32tik bultzatu den beste proiektua baserri bideak konpontzearena da. Aurten beste bi bide konponduko dira, Udalak bakarrik finantzatuta. «Pentsatzen dugu urtero baserri bide batzuk konpontzen joan behar dugula»

la», azaldu du Jexux Mari Gorosti-alkateak. «Bestela gero denak batera etortzen dira».

Horren harira, Udalak araudia jarri du udal jabetzako landa bide eta pisten erabilera berezia erregulatzen. «Orain arte herri bideak Udala eta auzoen artean konpontzen ziren», azaltzen du alkateak. «Auzoek %50 jartzen zuten, eskulan bezala, eta Udalak beste %50. Baina pentsatzen dugu auzoek bakarrik ez dutela parte hartu behar, eta proiektuen finantziarioa ere zehaztu. Guztira 12 egitasmo azaldu zituzten, tartean Goibegi zerbitzuetxea, saneamendu lanak edo Ibiurretik Larraitzera joango den bidea.

Araudiak zehazten duenez, 15 tona baino gehiago dituzten ibilgailuek lizentzia eskuratu beharko dute bide eta pista horietatik ibiltzeko. Tasa bat ordaindu beharko dute: bost bidaia arte, bidaia bakoitzeko 10 euro, eta bost bidaia baino gehiago eginez gero, 15 euro bidaia bakoitzeko. Baimenik gabe erabiltzen duenak isuna izango du, 30 euro bidai bakoitzeko. Seigarren bidaiatik aurrera, erabilpena egin ahal izateko bermea ordaindu beharko zaio Udalari. Horrela, bidearen bost metro lineal bakoitzeko 5 euro jarri beharko dira. Tasa ordainketaren salbuespena nekazal eta abeltzaintza jarduerak dira.

Irisgarritasun Plana eta inventarioa

Beste egitasmo bat Irisgarritasun Plana izan da, alor horretan herriari dauden beharrak ikusteko. Bestalde, herriko ondasunen inventarioa egin ari dira. «Planoak badaude, herriak zein eraikin, lur-eremu eta bide dituen jasotzen dituztenak, baina ondo zehaztu gabe zuden bakoitzaren ezaugarriak», azaltzen du alkateak. Laster inventarioa jendaurrean jarriko da, nahi duenak alegazioak egiteko.

Egun saneamendu lanak ere eginen ari dira, ur zikinak Ibiurribarra joan beharrean Amezketa

ibaira bideratzeko. Lan horiek baliatu dira zuntz optikoarentzat beste hodi batzuk sartzeko.

Espainiako Gobernuak herriei bideratutako Plan E diru laguntzakin, iaz herriguneko kableak lurperatu ziren alde batetik, eta bestetik, Olanoko bidea konpondu zen, horretarako beste erakunde batzuen diru laguntzak ere erabiliz. Aurtengorako Udalak Larraitzetik herrigunera doan bide egokitua plazaraino iristeko eta Urkola-Estanga bidea konpontzeko eskatu du diru laguntza. Plan E-tik laguntza horiek dagoeneko onartu zaizkio Udalari.

Parke naturalen inguruko diru laguntzak ere bideratu dituzte zenbait proiektu egiteko. 2009an onartutako laguntzei esker hainbat baserri iturteko bideak konpondu ahaliko dira. Bestetik, Larraitzen turismo informazio eta bertako produktuen salmenta gunea jarriko dute. «Aurreko udan proba bezala Tolosaldea Tour eta Goitourrek turismo informazio puntua jarri zuten eta arrakasta izan zuten. Mila lagun baino gehiago pasatu ziren bertatik», azaldu du alkateak.

Aralarrekin lotuta, diru partida bat jaso du Udalak. Enirio-Aralar Mankomunitatea 15 udalerrik osatzen dute eta bakoitzak baso ustiaketaren zati bana zuten, tamaina ezberdinekoak. Orain, Mankomunitatearen 600. urteurrena dela eta, liskarrak ezizateko, denak portzentzia berdina izatera pasatu dira, hau da, %6,66koa. «Dena tasatu zuten eta Abaltzisketak %13,71 zuenez, portzentzia diferentzia ordaindu zaigu», zehazten du Gorostidik.

Beste proiektua Pildaingo transformadorea da. Etxebizitza berriak egin dira eta horietako ardingarrak ez zegoen, transformadoreak ematen zuten guztia erabili eginen baitzen. Horregatik transformadore berri bat egin behar izan da eta kable berriak jarri. Obraen kostua Iberdrola enpresak hartu du bere gain.

» PROIEKTUAK**GOIBEGI ZERBITZUETXEA**

Udala	100.000 euro
LandaGipuzkoa	600.000 euro
Erein	300.000 euro

BASERRI BIDEEN KONPONKETAK 2009an konpondutakoak

■ Ihartzako bidea	
Udala	5.458 euro
LandaGipuzkoa	21.842 euro

2010eko aurreikuspenak

■ Aldabaldeko bidea	
Udala	10.153 euro
■ Erbetako bidea	
Udala	6.192 euro

IRISGARITASUN PLANA

Udala	3.600 euro
Eusko Jauriaritza	8.000 euro

HERRIKO ONDASUNEN INBENTARIOA

Udala	30.000 euro
-------	-------------

SANEAMENDU LANAK

Foru Aldundia	290.000 euro
Gipuzkoako Urak	291.000 euro

PLAN E 2009

■ Olanoko bideen konponketa	
Udala	14.707 euro
Tolomendi	7.707 euro
Amezketako Udala	11.870 euro
Plan E09	44.548 euro
■ Herriguneko kableen lurperatzea	
Plan E09	9.248 euro

PLAN E 2010 (eskaerak)

■ Bide egokitua plazaraino eramatea	
Landa Garapeneko Dep.	3.607 euro
Bide Azpiegiturak. Dep.	6.879 euro
Plan E2010	17.579 euro
■ Urkola-Estanga bide konpontzea	
Udala	6.928 euro
Plan E2010	17.000 euro

PARKE NATURALAK

■ Larraitzen turismo informazio eta bertako produktuen salmenta gunea	
Parke Natural. laguntza	22.500 euro
Leader Programa	22.500 euro
■ Hainbat bideren konponketak	
Parke Natural. laguntza	47.250 euro
Udala	15.750 euro

ENIRIO-ARALAR MANKOMUNIT.

■ Baso eskubideen lote banaketa	
Udalak jaso ditu	87.421 euro

IBIURRETIK LARRAITZERA BIDEA

Espainiako Gobernuak	374.098 euro
----------------------	--------------

UDALERRIKO PLAN OROKORRA

Udala	63.500 euro
Foru Aldundia	14.000 euro

Ibiurtegia eta Larraitz lotuko dituen bidea da beste proiektua. Obra horretako gastuak Espainiako Gobernuak hartuko ditu eta aurten burutuko dituzte lanak. Herri batzarrean azaldu zen beste proiektua Plan Orokorrarena da. Planaren aurrerapena onartu da eta egun hasierako dokumentua prestatzen ari da Udala.

aurtengo udan eguzkitako lente graduatuak musutruk!
*betaurrreko graduatua egitean

villabona
Berria 23 - Villabona
Tel.: 943 111 840

Eskola eta herri txikiak, geroaren bila pausorikan pauso

Larraul » Herrian eskola txikia izateko borrokan jarraitzen dute. 12 urtez azpiko 60 haur dituzte eta dagokien eskola nahi dute.

ENERITZ MAIZ

Larraulgo herrian jada 35 urte pasa dira hezkuntza zerbitzua bermatzen ez denetik. Herri txiki askotan gertatu den bezala, Larraulen ere, herria ustutzeak, eskola ixtea ekarri zuen. Azken urteotan ordea, Larraul biziberritu egin da eta biztanleriak gora egin duen bezala, larrauldar txikiak ere ugartu egin dira eta ez dira gutxi, 12 urte bitarteko 60 haur baitaude gaur egun.

Datu demografikoak kontuan hartuta, hezkuntza zerbitzu propioa izan zezakete ikusi zuten eta 2007. urtean, eskola zerbitzua herrian jartzeko lanean hasi ziren. 2007ko irailean, Udalak, indarrean zeuden baldintza guztiak bete, Eskola Txiki baten sorrera sustatu eta eskatu zuen eta horretarako lokal duin bat prestatu zuen. Aurrera egin ahal izateko, mantenu eta garbiketara lanak ere bere gain hartu zituen guraso elkartearen laguntzarekin.

Lekualdatutako gela bat soilik
Eskola Txikia edukitzeko eskubidea izanik, Udalak eta gurasoak elkarlanean ari dira. Hasiera batean eta asko borrokatu ostean, Hezkuntza saileko Asteasuko Pello Errota Ikastetxepean egongo zen, 2-5 urte bitarteko lekualdatutako gela bat soilik onartu zieten.

Zeuzkaten datuekin, Hezkuntza sailari eskola bat eskatu zioten eta arazoa izan zen, une horretan mapa eskolarra egiten ari zirela eta oraindik onartu gabe zeukatela. Baina Asteasuko Pello Errotako lekualdatutako gela bai izango zuten eta guztia ondo joanez gero, luzatzen joango zela esan zieten. 12 urte bitarteko eskola propio bat izan bitartean. Idatziz jasoa dute erabakia eta 2010-2011 ikasturtean, jada Larraul eskola txikia izatea dagokio.

Guraso elkarteare lanean

Familia asko batu dira seme-alaben etorkizuna eta era berean herriarena izango den Eskola Txikia lortzeko nahiarekin. Guk, Jexux Mari Irazu, Guraso Elkarteak kidearekin hitz egin dugu eta hau da azaldu diguna: «eskola sortzeko ahalaginak duela 10 urtetik hasita datoz. Azken hiru urte hauetan ordea, legeak markatzen dituen ume



Antton Amonarritz kultur etxean kokatzen da, Larraulgo Eskola Txikia. E. MAIZ

kopurua eta baita azpiegiturak ere alde genituen. Eta gurasoek gure haurrak hemen eskolaratzea nahi dugu eta Udalak ere zerbitzu hau eskaini nahi du».

Aurrera begirako ildoari buruz galdetuta «gu hasiera-hasieratik 12 urte bitarteko eskola zerbitzua izango den bila joan gara eta Udalak ere horrela nahi du eta proiektu hori bultzatzen jarraituko dugu. Ez daukate argumenturik, Larraul ez zaiola tokatzen esateko. Beraieration arabera, 12 urte bitarteko eskola mantentzeko 18 haur behar dira eta Larraulen jada datorren ikasturterako, bost urte bitartean 19 haur ditugu aurrematrikulatu» azpimarratu du.

Herriaren garapena ikusita, gainera, «12 urteko zikloa osatzean 60

umeren bueltan izango ditugu eta ezin dugu onartu Administrazioak ate hori ixterik» gaineratu du.

Haur kopuruaren aldetik oso goran dabilta eta beste urte batzuetarako ere haurrak izango direla ikusten dute; «guri eskola egokitzeko zaigula argi ikusten dugu eta guraso bezala, pedagogikoki ere argi dugu garantia osoko eskolak direla».

Hezkuntza saila Gipuzkoako beste zenbait eskola txikiren egoera ere berplanteatzen ari da. «Hori da bileretan esan digutena eta dagoeneko lista beltzak badabilta. Gurasoon lanetako bat Udalak bildu eta elkarrekin presioa egitea da, azken batean herri txikiak zerbitzuak eta bizi kalitatea daude joan» azpimarratzen du.

Aurtengo Anoetako festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute

Anoeta » Apirilaren 26a da lanak aurkezteko azken eguna eta irabazleak 200 euroko saria jasoko du.

E. MAIZ

Anoetako Udalak, aurtengo herriko festak iragartzeko egin beharreko kartela, lehiaketa bidez aukeratu du. Lehiaketa honetan, Anoetako Herri Ikastolako ikasleek edota Anoetan erroldatutako pertsonak har dezakete parte. Kartel irabazlea, festetako egitarauaren liburuxkaren azala egiteko erabiliko da.

Kartelaren ezaugarriak

Kartelak, karratua izan behar du eta gehienez ere 29,7 x 29,7 zentimetroko neurria izan beharko du. Teknika berriz librea izango da, hau da, eskuz egindako marrazkiak, akuarelaz egindakoak etab. Formatu digitalean ere aurkez daitezke eta azken kasu honetan gutxienez 300 ppi-ko erresoluzioa izan beharko dute eta JPG formatuan aurkeztu beharko dira.

Kartelean, nahitaezkoa izango da ondorengo testua agertzea: Anoetako Jaiki 2010. Lanak udalarekin aurkeztu behar dira. Lanarekin batera, eta kartazal itxi baten barnean, egilearen datuak sartuko dira (Izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina). Kartazalaren kanpoan eta kartelaren atzeko aldean, berriz, egilearen goitizena.

200 euroko saria jasoko du irabazten duen kartelaren egileak eta lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 26a, astelehena, izango da.

«Hezkuntza sailari ez diogu dirurik eskatzen, etorkizunerako aterik ez ixtea bakarrik»

XABIER MUJIKA Larraulgo alkatea

Larraul » Martxoaren 24ean Legebiltzarrerara joango dira. Herri, eskola, irakasleen... babesa nahi dute aurrera ateratzeko.

E. MAIZ

Xabier Mujika (Andoain, 1974) da herriko alkatea eta beraiek egindako lanari esker, Larraulgo eskolak, 2008ko irailean berriro ere atek zabaldu zituen. Lehen hezkuntza zerbitzua ordea, zintzilik dago.

Zergatzen da martxan duzen eskola txikiaren proiektuarekin?
2008an jarri zen martxan eta 2009-2010ean ere lekualdatutako gela bezala funtzionatzen ari da baina Hezkuntza 2010-2011 ikasturtean, modu independenteko eskola izango ginelako onartu zituzten eta 12 urte bitarteko eskola izan arte handituz joango zela. 2009ko



E. MAIZ

martxoan hauteskundeak izan ziren eta gobernu aldaketa gertatu zen. 2009-2010 ikasturtean, hezkuntzarekin harremanetan jarraitu behar genuen hurrengo ikasturtean begira, baina trabak baino ez ditugu izan.

Zer diote Hezkuntzako ordezkari berriek?

Publikoki Eskola Txikien alde hitz egiten dute, Legebiltzarreko agerraldian kasu. Pribatuan erabat kontra, gure bileretan behintzat. Larria dena da argudiorik gabe ari direla zalantzak sortzen. Udalak ia milioi bat euro kosta zaigun erakuntza berria jarri du, eta berez, Hezkuntzari zegokionean azpiegituraren ardura. Udalak eta gurasoek egin duten esfortzua eginda ez da ulertzen horrela jokatzea. Ez diogu dirurik eskatzen, etorkizunerako aterik ez ixtea bakarrik.

Hezkuntzak atea itxi nahi dizue baina ez zarete ixilik geratuko.

Bai, Hezkuntza sailak bideaitxi ditzake, orain Legebiltzarrerara joango gara, eta agerraldi bat eskatu dugu: martxoaren 24ean goizez izango da. Hezkuntza sailak, jakinarazpen bidez onartua dugun lehen hezkuntza ez digu eman nahi, eta gaur oraindik, ez digute idatziz ezer jakinarazi, ez dutelako inongo

lege edo irizpiderik ezezkoan oinarritzeko. Ahoz esaten digute.

Eta zein dira ahozko argudioak.
Gurekin hizketan egon denak, beraientzako, pedagogikoki, lehen hezkuntzan umea eskola handiagora batera joatea eta ume gehiagorekin egotea hobea dela esaten digu. Guk galdetzen diogu ea zertan oinarritzen den edota zer esan nahi duen, eskola txikiago batean ikasi duenak gaitasun berak ez dituztela izaten? Guk, gure haurrentzat onena nahi dugu.

Zer eskatzen duzue?

Hezkuntza sailak onartu zuen 12 urte bitarteko eskola zerbitzua aurrera eramatea. Udalak eta Guraso elkarteak bat eginik jarraituko dugu bide gehienak ukituz. Orain arte Larraul bezala borrokatu dugu baina hemendik aurrera beste herri, eskola, irakasleen... laguntza nahi dugu arazoa ez delako gurea bakarrik.

Hilaren 9tik aurrera Zubimusu zubia itxita egongo da ibilgailuentzat

Zizurkil » 08:00etatik aurrera itxiko dute eta Oinezkoen eremuan egin beharreko lanengatik izango da.

E. MAIZ

Hilaren 9tik aurrera, oinezkoen eremua txukuntzeko egin beharreko lanak direla eta, Zubimusu zubia ibilgailuentzat itxi egingo dute. Goizeko 08:00etatik aurrera itxiko dute eremua baina oinezkoek posible izango dute bertatik igarotzea. Hori bai, beti ere, arreta handiarekin ibili beharko dela jakinarazi dute Udaletik.

E **Elkarrizketa****LANDER OTERMIN, ONINTZA IRAOLA, IMANOL OTERMIN ETA MIRIAN ELORZA** › Sokatiralariak

A. IMAZ

«Munduko Txapelketik gabe ez litzateke sokatirarik egongo»

Sokatira › Otermin anaiak, Iraola eta Elorza lehian aritu dira Italian otsailaren 26an eta 27an, Kluben Munduko Sokatira Txapelketan.

ASIER IMAZ

Italiako Cesenatico herrian jokatu da otsailaren azken astean Kluben Munduko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa. Eskualdeko lau tiratzaile egon dira bertan: Lander Otermin (1982, Ibarra), Imanol Otermin (1979, Ibarra), Mirian Elorza (1981, Tolosa) eta Onintza Iraola (1983, Hernialde).

Orain gutxi amaitu den Euskal Herriko Sokatira Txapelketan Ibarra taldearekin ibili dira lau-

rak, gehienbat, Italianaldiz, Abadiñorekin eta Sakanarekin tira dute. Emaizta? Urrezko eta brontzeko bina domina.

Nolatan joan zarete Munduko Txapelketara Sakanarekin eta Abadiñorekin.

Lander Otermin: Ibarrekin kanpora joateko ez zegoen ez dirurik ez aukera handiegirik. Euskal Herrikoan pisu handietan atera ginen Ibarrekin, baina txikietan ibiltzeko ez genuen jenderik. Abadi-

ñok ea eurekin aterako ginen galdetu ziguten. Beraiekin aritu gara tiratzen eta Txapelketa amaitzean Mundiala etorri da. Jarraipen munduko bat izan da.

Mirian Elorza: Gure kasuan, Sakanatik Nafarroako Txapelketan parte hartzeko deitu ziguten, abenduaren erdialdean. Ibarra Euskal Herrikoan parte hartzeko aukera eman zigunez, ez zekoa esan genien Sakanakoei. Behin Txapelketa amaitu zenean, Mundialera joateko aukera eskaini ziguten. Onintza eta biok eskaintza ona zela pentsatu genuen; Landrekerere aukera hori ez galtzeko eta aprobetxatzeko esan zigun.

Zuen kasuan, Elorza eta Iraola, dena kolpetik etorri zaizue gaine-

ra: Ibarra festetan hasi zineten sokatiran, gero Euskal Herriko Txapelketa etorri zen eta, orain zer, eta Mundiala.

Onintza Iraola: Azkenean dena ustekabea etorri da. Sokatiran hastea ere ez genuen pentsatzen duela hilabete batzuk. Oharkabean hasi ginen eta pixkanaka aukerak ateratzen joan dira, eta guk aprobetxatu egin ditugu. Aurten goa errepikatzea ez da erraza izango.

Elkarrekin joan al zineten Italiara, Munduko Txapelketara?

Imanol Otermin: Ez. Gu lehenik Abadiñora joan ginen. Taldekoekin elkartu, hegazkina 04:00etan Bilbon hartu eta Madrilera. Bertan, Bolognara joateko beste he-

gazkin bat hartu genuen. Ondoren, Italian, autobus batean iritsi ginen Cesenatico-ra.

M. E.: Gu Altsasutik autobusez joan ginen Madrilera. Ondoren euren antzeko bidaia egin genuen. **O. I.:** Guretat dena berria izan da. Sakanako taldearekin entrenamendu batzuk egin genituen baina ez genekien ziur tirako genuenik. Neurri batean mundu hau barne-tik ikustera joan gara Txapelketara.

Eta zerbaitek harritu al zaituzte?

M. E.: Txinatarren diziplinak. Entrenatzaileak A esaten zuen eta nesken kasuan behintzat, A egiten zuten. Gero denak altura berdinekoak ziren. Lehian berriz, galtzear egoten ziren batzutan, orduan «E,

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

A, E, A...» hasten ziren eta atzera eramaten zuten. Guk hemen «bat, bi, bat, bi...» egiten dugun bezala



«Esperientzia politena Hoteleko parranda izan zen; hor lortu genuen guk urrezkoa»

IMANOL OTERMIN
Abadiño B taldeko kidea

eurek «E, A» egiten dute; kolpeka tiratzen dute, bukatu arte.

O. I.: Sokatiratik bizi ziren. Horrekin ere harrituta gelditu ginen. Beka edo soldata bat jasotzen dute, eta ez Mundialera joateagatik bakarrik, bestela ere sokatiran ibiltze hutsagatik.

Eta teknika aldetik?

O. I.: Txina Taipei taldeak. Tiraldi oso gogorrak egiten zituen eta gero gainera, oso azkar errekupeztatzen ziren.

M. E.: Euskal Herrian denak an-



«Txinatarrek soldata edo beka moduko bat jasotzen zuten sokatiran ibiltzeagatik»

ONINTZA IRAOLA
Sakana taldeko kidea: bi brontze

tzeraz egiten dugu, han berriz, txinatarrek kolpeka tiratzen zuten; belaua ia ia lurreraino tolestu eta atzera.

L. O.: Irteera ematen denean hemen presio konstantea egiten da. Beraiek galtzen ikusten direnean, soka utzi bezala egiten dute, eta gero kolpea, denbora guztian horrela, erabat noraezean gelditzen zara. Eta gero irabazi egiten dute.

Soka lasatu eta ondoren kolpea ematea, legediaren barnean sartzen al da?

L. O.: Lurrera erotzen zara, kolpea ematen dutenean altxa egiten zara eta gero berriz lurrera. Eta horrela behin eta berriz. Berez ez dakit guztiz legezkoa den.

Arbitroekin ondo konpondu al zarete?

I. O.: Euskal Herriko Txapelketan baino libartate gehiago ematen dute. Gurean zorrotzagoak dira.

O. I.: Nire ustez denetik zegoen. Batzuk segidan falta markatzen zuten eta beste batzuk berriz, ez zuten ezer ikusten.

Berrikuntzen artean, pisaketa aipatu behar da.

I. O.: Munduko Txapelketa bi egunetan jokatzeko da eta egun bakoitzean bi pisutako lehiak daude. Lehen, pisaketak egun bakoitzaren hasieran egiten ziren. Egun guztia tiraka ibili ostean kontuz ibili be-



«600 kilotan gerra ematea espero genuen, baina irabaztea beste kontu bat zen»

LANDER OTERMIN
Abadiño A taldeko kidea: bi urre

har zinen, gehiegi jan gabe, hurrengo egunean berriz pisatzen baitzintuzten. Aurten, Txapelketaren aurreko egunean pisatu gintuzten, lehia guztietarako. Ondorioz, lasaigo ibiltzen zara alde horretatik ondoren egunetan.

Podium-era ikurrinarekin igoko zinatela pentsatzen dut.

O. I.: Podium-era ezin zen ikurrinarekin edo banderarekin joan. Hor gainera, nahasmen bat egon zen. Neskok, podium-a atzean genuela, argazkia ateratu genuen behin medailak jantzita. Ekitaldiak amaitu zirela pentsatzen genuen baina ez zen horrela, beste pisu baten sari banaketa falta zen oraindik. Argazkirako prest geundela batek ikurrina ateratu zuen eta tira birak egon ziren, podium-era ikurrinik ezin zela eman, hori esaten zuten akordio bat zegoela eta abar.

Lander Otermin, urrezko bi domina ekarri dituzu zuek etxera, espe-ro al zenuen horrelako lorpenik?

L. O.: Duela bi urte, azkeneko Kluben Munduko Txapelketan, 600

kilotan urrezkoa irabazi genuen eta 560koan brontzea. Aurten, 600ekoan antzeko jendearekin joan gara, agian potentzia gehiagorekin. Ondo ibiliko ginela pentsa-



«Berriak ginen eta brontzezko bi domina irabaztea ezusteko handi bat izan da niretzat»

MIRIAN ELORZA
Sakana taldeko kidea: bi brontze

tzen genuen baina ez genuen beste taldeen erreferentziarik. Gerra ematea espero genuen baina irabaztea... 560koan berriz, duela bi urte dezenteko koska ateratu ziguten, nahiz eta hirugarren gelditu. Aurten berriz, gora egin dugu eta ondo ateratu da.

Imanol Otermin, zer moduz moldatu zara Abadiño Brekin?

I. O.: Gure taldean sokatiran gutxi ibilitako jende bat zegoen. Paper on bat egitera joan ginen eta ez da esperientzia txarra izan. Baina bi-zipen hobe izan da bertan egingenuen parranda, hor bai, hor urrea lortu genuen.

Ingurua ezagutzeko denbora eduki duzue beraz.

I. O.: Egia esan ez gehiegi. Txapelketa ostegunean hasi eta ostiralean bukatu zen. Behin tiraldi guztiak amaitu zirenean, gauean, Hoteleko diskoteka antzeko bat jarri ziguten eta han ibili ginen euskal ordezkari gehienak. Larunbatean ondoko herri bat ikustera joan ginen eta igandean berriz, etxera.

Sakanako taldearentzat ezustekoa izan al da lortutako emaitza?

M. E.: Nire ustez bai. Munduko Txapelketa batean gehienak berriak ginen. Niretzat izugarriko sorpresa izan da.

Txapelketa honen harira, goma gainekoa sokatira krisian dagoela esan duenik ere bada. Lur gainekorako entrenamendu bat bezala hartzen omen dute hainbat klubek.

L. O.: Lur gainean talde gehiago egoten dira, hori egia da, baina entrenamendu bat bezala hartzea zaila iruditzen zait. Eskuak egingo dituzu agian, baina goma gainean onena izanda ere, lur gainean talde txarrenak egurra ematen dizu. Oso desberdinak dira. Munduko

Txapelketak gainera bi urtean behin izaten dira, ez hiru hilabetero. Nire ustez taldeak honen zain egoten dira eta ongi prestatuta joaten dira.

I. O.: Sokatiratzen baldin badu, Munduko Txapelketei esker da. Lur gainekoa baino baxuago dago goma gainekoa, baina ondo dagoela iruditzen zait.

Etorkizunari begirajarrita, zer duzu buruan?

O. I.: Bi urte barru urrea irabaztera joango gara. (Barreak). Gure ka-

suan orain atsedean hartuko dugu, hurrengo urterara arte.

M. E.: Ibarrako taldearekin indarra egiten jarraitu behar dugu. Euskal Herriko Txapelketan aurten baino zer bait hobeto ibiltzen saiatu behar gara.

L. O.: Gure kasuan, orain lur gainekoa dator. Berriz hastea kosta egiten da baina talde batzuk entrenamenduetan dabilta jadanik. Lehenik atsedean hartuko dugu eta gero ikusiko da, gogo pixka bat etortzen baldin bada...





13°
0°

GOIZA ELUR ARRISKUA
ARRATS. ELUR ARRISKUA
BEROENA 7°
HOTZENA 0°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** Kandelen argipean taldeak *El oraculo del cuento* antzezlaena eskainiko du gaur Triangulon 11:30etik 13:00etara, Ahozkotasunaren Jaialdian.

Zinema

■ **Tolosa.** *Un novio para Yasmina* filma Leidorren gaur 22:30ean, Emakumeen Nazioarteko Eguna-ren zikloaren baitan.

Hitzaldia

■ **Alegia.** Autoestimua hitzaldiak hilaren 12an 14:15etik 16:00etara eskolako patiko liburategian. Bertan autoestimua eta auto kontzeptuaren osaketaren abiapuntuak ezagutzeko eta nortasunaren garapenean autoestimua eragina ulertze, besteak beste, izango dituzte hizpide.

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Pirritx, Porrotx eta Marimotsen *Irrien lagunak* emanaldia gaur Leidor aretoan 16:30ean eta 19:00etan.

Mendi irteera

■ **Alegia.** Izazpi mendira (Zumarraga) irteera antolatu du Alegiako Mendi Asanbladak hilaren 14rako.
■ **Ibarra.** Xiberoara irteera antolatu dute hilaren 13an eta 14ean. Izena emateko: 652 75 18 00 telefonoaren bidez eta Denak Tabernan edo Sendi Ekintzan apuntatu.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikoko arbola. 3. 943 65 10 45.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Euskal kirolekin harremanak bultzatuz

KIROLA ■ Beotibar pilotalekuan Xibak antolatu eta Kutxak lagunduta LH5. mailako ikasleentzat jaialdia izan zen atzo. 18 taldek hartu zuten parte, 200 neska-mutil inguru aritu ziren, beraz, pilota ardatz duten jolasetan. Euskal jolasak ezagutzera emateaz gain, ikasleentzako arteko harremanak landu eta garatzea da ekimen honen helburu nagusia, «beti ere jolasak nahiz lehiak, tresna motibatzaile bezala erabilita, ez helburu bezala». Euskaraz aritzea eta ondo pasatzea funtsezkoak dira, baita ere, ekimen honetan. i.t.

A Agurrak



Zorionak!

Amona Juanita. Urte askoan amona! 87 muxu. Ondo pasa eguna!

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	